



ALEGIAKO ORRIE

ALEGIAKO ORRIE - 2018ko apirila // Argitaratzailea: Alegiako Udala

Erredakzioa eta diseinua: Goioa // Inprimaketa: Garaiko

EUSKARA ETA HIRIGINTZA

ERAGIN LIGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Lurralde eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea da Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELEren) helburu nagusia. Horrez gain, euskararen eta euskal hiztun elkartearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea ere bai. ELEren aplikazioak lehenik ere bistakoa zena, baina behar beste mahai gaineratu ez zen ebidentzia jarri du guztion begien bistan: hiz-

kuntza-politikek erabarterako zeharkakotasuna dute.

Udalerrri euskaldunen bilakaerak argi erakusten du, lurraldearen antolaketa mailan garatutako politikek eta garapen teknologikoak eremu horietako hizkuntza-politikatzat hartu diren politikek baino eragin dezente nabarmenagoa izan dutela. Eragin linguistikoaren proiektu edo jarduera batek eremu jakin batean sortzen duen egoera soziolinguistikoaren aldaketa da.

Hori hizkuntza batentzat, positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke. Alegian aztertu da Hiri Antola-

mendurako Plan Orokorren (HAPOren) eragina prozedura hau jarraituta:

1.- Alegiako testuinguru orokorra aztertu da; bereziki: datu demografikoak, soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak.

2.- Galdetegi laburra erantzun da. Oinarrizko galdera horietako bati, behintzat, BAI erantzuna eman zaio, eta beraz ebaluazioan sakontzeko hurrengo urratsak eman beharko dira. HAPOk tokiko biztanleria kopuruan eragina izango duela uste da, etxebizitzaren berriak aurreikusten baititu proiektuak.

3.- Bilakaera indizea kalkulatu da hazkunde


hipotesi ezberdinen arabera. Horretarako, kontuan hartzen da biztanleriaren hazkundearen indizea, euskararen proiektzioaren indizea eta hauskortasun indizea.

Alegiako HAPOk euskararen izan dezakeen eragina bi faktore nagusik determinatuko dute: batetik, eraikiko den etxebizitza kopuruak, eta, bestetik, etxebizitza berri hauen kokapenak. Lehenengoak etor daitkeen biztanle berri kopurua baldintzatuko du, eta, bigarrenak, biztanle berri horien eta tokiko komunitatearen, zein bere dinamiken, arteko harremana. Galdetegiei erantzutean

Alegiako herritarrek, kezka izan arren, argi dute hizkuntza komunitate indartsu baten parte direla; eta Udalak, bere aldetik, hizkuntza irizpide sendoak ezartzeko borondatea du.

Dena den, azken kale erabilera neurketan jasotako ehunekoei modu aktiboan eutsi behar zaie. Garapen aurreikuspenen aurrean, babes neurriekin eta neurri zuzentzaile egoekiekin herriko euskal komunitatea sendotzea bilatuko da.

Alegiako Udal hautetsiek, Udal arkitektoak eta UEMAko kideek hartu dute parte dokumentu honetan eta Udaleko webgunean dago.



POLITIKA

2018KO UDAL AURREKONTUAK

Alegiako Udalak 2017ko abenduan onartu zituen 2018ko aurrekontuak. Guztira 1.977.308,29€ko aurrekontua izango du Udalak ekitaldi honetarako. Aurrekontu horren ehuneko ia hamarra gizarte zerbitzu eta gizarte sustapenera bideratuko da. Alegiako Udalak funtsezkotzat duen alorretako bat da

hori eta aurrekontuaren zati garrantzitsu bat arlo horretara bideratzen jarraituko da. Besteren artean, genero berdintasuneran bideratzen den partida aipatu daiteke atal honetan. Egingo diren inbertsioak aipatzen hasita, hilerrirako egingo den oinezkoen bidea azpimarratu behar da. Beistin auzoko etxe-

bizitzen ingurutik hilerri bitarteko bide bat egingo da oinezkoek Altzoko errepidea baino bide seguruago bat izan dezaten. Horrekin batera, kultur etxean hiru komun irisgarri ezarriko dira. Ingurumenarekin loturiko inbertsioak ere egingo dira, zuhaitzen soiltze lanak gauzatu. Aralar bidean eta Etxe-



txuriko bidean egingo dira lan horiek. Bestetik, zuhaitzen birlandaketak ere egingo dira herriko hainbat puntutan eta platanondoei tratamendua emango zaie. Azkenik, aipatu Udalak egoera txarrean zeuden bi etxola bota dituela azken asteetan. Batetik, Larraitz auzoaren eta Frankoniren artean zegoen etxola eta beste-

tik, futbol zelaitik Beistin auzora bitartean zegoena. Udalak bere gain hartu ditu etxola horiek eraisteko kostuak.

Euskarak ere izango du bere lekua aurrekontuetan. Udalak 30.000 euroko diru kopuru bat bideratuko du hizkuntzaren alorrera. Informazio osatua udal webgunean.



GIZARTEA

KONTSUMITZAILEEN ALEGIAKO BULEGOA ITXITA

Azken urteetan Alegiako Udalean kontsumitzaileen bulego batek zerbitzua eskaini die herritarrei, gaiaren inguruan zituzten kezak bideratu eta zalantzak argitzeko helburuarekin. Tolosaldea Garatzenekin elkarlanean, Kontsumitzaileen Informaziorako

Udal Bulegoa izeneko ekimenaren baitan, teknikari batek eskualdeko herriei eskaintzen zien zerbitzua izan da.

Bada, hemendik aurrera zerbitzu hori ez da modu presentzialean emango. Orain arte asteazkenetan egoten zen zabalik kontsumitzaileen

bulegoa udaletxean, baina aurrerantzean ez da eskainiko, teknikariari ezinezkoa zaiolako zerbitzu hori eskaintzea.

Dena den, kontsumoaren inguruan zalantzak dituzten herritarrek izango dute horiek argitzeko aukera Tolosaldeko Kontsumi-

tzaileen Informaziorako Udal Bulegoarekin harremanetan jarrita.

Alde batetik posta elektronikoz bidali ahal izango dituzte erabiltzaileek dituzten kexa edo iradokizunak. kontsumoa@tolosaldea.eus helbidera bidali beharko dira.

Bestetik, kontsultak telefonoz egiteko aukera iere izango da. 616 64 78 35 telefono zenbakian emango zaie arreta herritarrei eta hirugarrenen aukera modura, Tolosaldeko bulegora modu presentzialean ere joan ahal izango da, zalantzak argitzeko.

Gainerako herritarrekiko begiruneagatik besterik ez bada ere, herrigunean **TXAKURRAK LOTUTA DERRIGO-RREZKOA** dela gogorarazten zaie txakurren jabeei.

Txakurren **kakak txakurren jabeek beraiek jaso behar dituzte**, eta **errefusa** jasotzen den edukiontzira bota.

Txakur arriskutsuei **bozala** jarri behar zaie. Elkarbizitzaren alde hartu beharreko neurriak dira.

La versión en castellano de Alegiako Orrie está **disponible en el Ayuntamiento** para todos aquellos ciudadanos que deseen consultarla.

Los vecinos que quieran **recibir en su domicilio la versión en**

castellano de Alegiako Orrie, tendrán la opción de **solicitarla en el Ayuntamiento** facilitando los siguientes datos: nombre, apellidos y dirección. El Ayuntamiento se encargará de mandar la revista a los domicilios.

MARTXOAREN 8 ARRAKASTATSUA

Duela aste batzuk ospatu zen Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Aurten lehen aldiz, mugimendu feministak greba deialdi bat egin zuen mundu mai-

lan, betiko aldarrikape-nei eusteaz gain, ekin-tzen arloan pauso bat aurrera eman eta emakumeek euren jarduna uzteak munduan iango lukeen eragina islatzeko

helburuarekin.

Alegian ere izan zuen isla martxoaren 8ak. Zerbitzu publikoetan zein pribatuetan nabaria izan zen geldialdiaren eragina eta Udalak dei-

tuta “Berdintasunean hazi, hezi eta bizi” lema-pean egin zen kontzentrazioan herritar ugari hartu zuen parte.

Kontzentrazioaren ostean “Erradikalak Gara” antzezlan eskaini zuten Ane Labakak eta Betariz Egizabalek Elizpe zinean. Ekitaldi hori eguneko aldarrikapekin bat eginez, modu erreibindikatzailean egin ziren.

SEXU ERASO SAIAKERA

Iragan martxoaren 15ean emakume batek sexu eraso saiakera bat jasan

zuen Alegia eta Tolosa arteko bidegorrian. Alegiako Udalak eraso jasan zuen emakumeari babesa eta elkartasuna adieraztearekin batera, gertaera salatzeke kontzentrazio bat deitu zuen eta asko izan ziren bertan parta hartu zuten herritarrak.

Alegiako Udalak, indarkeria mota hori modu irmoan salatzearekin batera, horrelako jokabideek gure gizartean lekurik ez duela adierazi zuen gertaturikoa salatzeke kaleratutako komunikatuan.



HIRIGINTZA

FUTBOL ZELAIAREN ERABERRITZEA UDAN

Elorri futbol zelaian belar artifiziala jartzeko lanak esleitu zituen Alegiako Udalak udazkenean. ALVAC, S.A. enpresak izango du lan horiek egiteko ardura eta belar artifiziala jartzearekin batera, zelaiaren eremuan azpiegitura horrek eskatzen dituen beste hainbat lan ere egingo dira, tartean ureztapen sistema ezartzearena. Horrekin bate-

ra, ikusleen erosotasuna areagotze aldera, eserleku batzuk ere ezarriko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza bat baliatuko du Udalak futbol zelaiaren eraberritze lanak egiteko. Hasiera batean, 2018 hasieran lanak eginda egotea aurreikusten bazen ere, azkenean udan egingo dira, hainbat arrazoi medio. Bate-

tik, lan horiek egiteko hainbat egunetan eguraldi ona egitea ezinbestekoa da eta urte sasoi honetan hemen hori ezin da bermatu. Bestetik, Intxurreko futbol taldeentzat ere erosoagoa da denboraldi honi dagozkion lanak zelai zaharreen amaitzea eta denboraldi berriari zelai eraberrituan ekitea. Bestela, inguruko herriren batera joan beharrean



izango ziren etxeko partidak jokatzera. Gauzak horrela, Elorri zaharreen

jokatuko diren azken partidak izango dira datozen asteetakoak.

LABURRAK

- Udaberriko Kultur Egitarauari buruzko informazio osoa Udalaren webguneko agenda atalean duzue eskura.
- Tolosaldea Garatzenek 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat merkataritzari buruzko ikastaro bat antolatu du.
- Apirilaren 21ean Elkartasun Eguna ospatuko da gaztetxean Altsasuko eta Tolosako M11ko auziperatuen alde. Egun osoko egitaraua izango da: mahai ingurua, sagardo dastaketa, zahagiardoa, kontzertuak...
- Apirilaren 25ean Larrait Mendebaldeko lanen balorazio bilera irekia egingo da 18:00etan kultur etxean.
- Informazio hori guztia eta gehiago modu zabalagoan eskura duzue www.alegia.eus webgunean.

INGURUMENA

BARATZE PARKEAN PARTZELAK LIBRE

Udaberria iristearekin batera egualdiak hobera egiteko joera izaten du eta orduan hasten da Alegiako Baratze Parkea bizitza berreskuratzen. Aurtengoa gainera aspaldiko negurik gogorrena izan da eta baratzean jarduteko giro ona estimatuko dute parkeko erabiltzaileek.

Beloztegiko baratze parkean erabiltzaile ugari daude baina hainbat

partzela libre daudela ere gogorarazi nahi zaie baratze bat izateko ideia buruan darabilten herri-tarrari.

Interesatuta daudenei informazio gehiago eskuratzeko udaletxetik pasatzea gomendatzen zaie. Baratze parkeko erabiltzaileen elkarteko kide egitea eta ezarrita dagoen urteko kuota ordaintzea dira bete beharreko baldintzak.



KULTURA

HERRIA KANTUAN III, EKAINAREN 9AN

Alegiako Kultura batzordea Herria Kantuan jaialdiaren ekitaldi berri bat prestatzen ari da. 2012ko ekainean egin zen azken ekitaldia eta orduko hartan, musikaren munduan dabilzan alegiar ugari hartu zen emanaldian.

Bada, sei urteren ostean, batzordeak hiru garrenez antolatu nahi du eta horretarako musikan murgilduta dabilzan herritarren parte hartzea eskatu dute.

Aurreko ekitaldian zahagiardoa egin zen lehenik iluntzean eta ondoren eskaini zen emanaldia. Aurtengorako ere ideia berdina darabil buruan antolaketak. Esan bezala, ordea, musikarien parte hartzea ezinbestekoa da

jai hori egin ahal izateko.

Hortaz, jaialdian parte hartzerantz animatzen diren musikariei kultur etxera joateko eskatzen zaie eta han jaso ahal izango dute antolakuntzari buruzko informazio gehiago.

Herriak, herritik eta herriarentzat egindako festa bat bezalakorik ez omen dago eta ea bada, denon artean Herria Kantuan jaialdiaren bigarren ekitaldia antolatzea lortzen dugun!! Animatu eta parte hartu festan!!

Ekitaldi hori izango da Udaberriko Kultur Egitarauaren ardatz nagusienetako bat. Horrekin batera ordea, beste ekitaldi ugari ere izango dira jada abian den eta ekaineko azken asteburura bitartean



luzatuko den egitarauan.

Ohi bezala, ipuin kontaketa, erakusketak, antzerkia, musika, ikastaroak eta bestelako hainbat ekintza izango dira. Esate baterako, maiatzaren 11n, ostirala, Mattin Zeberio gazte tolosarraren "Zortzi Yukon" dokumentala ikusteko aukera izango da gaueko 22:00etan Elizpe zinean. Duela mende bat Alaska eta

Kanada inguruan urte bila zebiltzanek egiten bidea egin zuten zortzi lagunek oinez eta kanoaz eta bidaia horretan oinarritzen da Zeberrioren kontakizuna. Aipatu, dokumental horrek 2017ko Bilbao Mendi Film Festival mendiko zinemari eskainitako jaialdi sonatuan, euskarazko lanik onenaren saria jaso zuela. Horrekin batera, api-

rilaren 20an, ostirala, Iker Lauroba eta Zentinelak taldearen kontzertua izango da Elizpe zinean. Iker Lauroba musikari donostiarraren inguruan sortutako taldea da eta bere bakar-kako bi diskoetako abestiak eskainiko dira emanaldi horretan.

ALEGIAKO ORRIEN hurrengo alean izango duzue egitaraua aletuta.